



**Arartekoaren ebazpena, 2010eko abuztuaren 31koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio jabekideen komunitate batek erabilera publikoko zorra duen espazio pribatuan egindako gastuak ordain ditzan.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...) kaleko (...) zenbakietako jabekideen komunitateak kexa bat aurkeztu zuen Bermeoko Udaleko Hirigintza, Obra eta Ingurumen Batzordeak hartutako erabakiarekin ados ez egoteagatik.

2009ko uztailaren 17ko informazio batzordearen irizpenak xedatu zuen udalak erabilera publikoko zorra duen espazio pribatuko parkearen zolaketan erabilitako materialen balioa bakarrik ordainduko zuela.

2. Jabekideen komunitateak kontu horren berri jada eman zigun 1550/2006/29 kexa-espeditentean; bertan, honako gogoeta hauek oinarri hartuta gure esku-hartzea eten genuen.

*"Kexaren helburu zehatza zen ohartaraztea Udalak ez duela bere gain hartu, nahiz eta berez hala egin beharko lukeen, terraza hori mantendu, zaindu eta konpontzeko erantzukizuna, titulartasun pribatukoa den arren, erabilera publikoko zortasuna baitu.*

*Jasotako informazioaren arabera, kontua da 2007ko urtarrilaren 29ko Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartu zuela 2006ko azaroaren 6ko akordioaren aurka jabekideen komunitateak aurkeztu zuen birjartzeko errekurtsoren inguruan. Akordio horrekin bat etorriz, (...) plazako (...). atalondoen egoeraren gaineko erantzukizuna obrak egin zituen enpresari zegokion. Horri dagokionez, erabakiaren arrazoen artean aipatu da Udalak ez duela zertan era horretako obrarik ordaindu behar. Gu, ordea, ez gatoz bat irizpide horrekin, erreklamatzailiek beren errekurtsion berariaz aipatu duten Arartekoaren maiatzaren 8ko 13/2003 Gomendioak dioen bezala.*

*Baina, hartutako erabakiak dio, Udalak gai honen inguruan behin betiko erabakia hartu aurretik, interesdunek obra-lizentzia aurkeztu beharko dutela, baita aurrekontu xehekatua ere, Udalak ordaindu beharko lukeen zenbatekoa adieraziz. Horretatik ondoriozta dezakegu Udala prest dagoela jabekideen komunitateak egindako eskaera kontuan hartzeko."*

Arartekoak, aurrekari horiek ikusirik, udalari informazioa eskatu zion, erakunde honek gaiari buruz zuen irizpena adieraziz. Hala, esan genuen erabilera publikoko zorra duten espazio pribatuetan udalak bere gain hartu beharko lituzkeela espazio publikoaren erabilerak eragiten dituen gastuak. Izan ere, beste edozein gune publikotan bezala, urbanizazioa segurtasun, osasun eta





apaintasun publikoko baldintza egokietan izateko betebeharra dauka, eta horretarako beharrezko neurriak hartu behar ditu.

3. Alkateak udal arkitektoaren 2010eko otsailaren 5eko txostena bidaliz erantzun zion hasierako informazio eskaera horri. Bertan, honako hau adierazi zen:

*“...CONCLUSIÓN: Si hay humedades en un piso inferior y no son imputables al mal estado del pavimento, sino a los elementos constructivos inferiores y propios del sótano, el propietario del piso superior no debe de abonar nada, ya que el tema es ajeno a su competencia y así lo manifestó en su día la Diputación Foral de Bizkaia en escrito expreso, para evitar el sobre costo arteramente pretende imputarse a la Administración por la caducidad (cada 10 o 15 años) de los elementos impermeabilizantes (telas asfálticas) lo que supondría un sobre costo inabordable, habida cuenta de las grandes superficies bajo rasante, con propiedad privada.*

*... En resumen, se trata de una especie de favor, por lo que, el del piso superior (Ayuntamiento en este caso) permite, por su propiedad, realizar la obra y además la subvenciona “voluntariamente”, con el criterio de “...ya que el material del pavimento es nuevo....lo pago, de forma voluntaria y subvenciono a los ciudadanos.”*

4. Txostena kontuan hartuta, gaiari buruzko informazio berria eskatu genuen. Izan ere, auzokoei esan zuten zolaketa kontserbatzeko baldintza txarrean zegoela. Horregatik, zenbait alditan konpontzeko eskatu zuten. Narriadura egoera hori asfaltozko geruzari ari zen eragiten eta ez alderantziz, udal arkitektoak zioen moduan. Horrez gain, adierazi zuten, 70. hamarkadan plaza hori eraiki zenetik – jendeak erabil zezan- udalak ez duela inoiz konponketa edo mantentze-lanik egin.

lido horretan, gure ustez, udal arkitektoaren txostenak hipotesiak jorratzen zituen, betiere zolaketa egoera onean dagoela oinarri hartuta. Hala ere, zehatz-mehatz ez zen adierazi zolaketa plaza horretan obra egin baino lehen nola zegoen. Hori horrela, gai horri buruz informatzeko eskatu genuen.

Horrez gain, adierazi genuen udalak erabilera publikoko eta erreklamatzailen antzeko ezaugarriak zituen alboko espazio batean hartutako planteamendua desberdina izan zela, materialaren kostua gain hartzeaz gain, eskulana ere gain hartzen baitzuen. Hala, 22.334 euroko zenbatekoa ordaindu zen 407,99 metro koadroko gunearengatik -46 euro metro koadroko- (teknikoak aurreko txosten batean eskatutako xehekatutako prezioak eman ez ziren arren).

Aitzitik, alkateak kexa aurkeztu duen jabe-kideen komunitateari esan dio materialen kostua bakarrik ordainduko diela, hain zuzen, 5.610,99 euro, 801,57 metro koadroko erabilera publikoko espazioan, alegia, 7 euro metro koadroko.





Laburbilduz, adierazi genuen udalaren parte hartzea zehazterakoan irizpide desberdinak daudela, borondatezko ordainketa baten aurrean gaudela dioen udal planteamendua izan arren.

5. Bermeoko Udalak helarazitako erantzun berriak, funtsean, honako hau dio:

- Gaiari buruzko udal irizpideak udal arkitektoaren otsailaren 5eko txostenean jasotakoak dira (txosten hori lehen aipatu dugu).
- 2006ko azaroaren 6ko tokiko gobernu batzarrak eskaera horren inguruan iritzia eman zuen eta horren harira esan zuen plaza horren egoeraren ardura edo erantzukizuna obrak burutu zituen enpresari eskatu behar zitzaioela.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

### Gogoetak

1. Lur-azpian aprobetxamendu pribatua duten espazioak edo guneak, oro har, garajeak, plaza edo gune berdeetarako erabilitako azaleraren erabilera publikoarekin batera, tokiko administrazioek sustatu dituzte hirigintzako plangintzaren baliabideetan. Formula hori egokia izan da erabilera pribatuak erabilera publikoekin bateragarri egiteko, hain zuzen, lurzorua bezalako baliabide bati dagokionez, beti mugatua baita eta udalerrietako ibilgailuak apartzeko eskaera konpontzeari dagokionez. Hori horrela, erabileren bateragarritasun horrek arazoak ekarri ditu elkarrenganako harremanetan. Izan ere, bere garaian ez ziren aintzat hartu eta orain, banaka-banaka konpondu behar dira.

Hirigintzako legeek<sup>1</sup>, oro har, honako hau ezartzen dute: espazio batean erabilera publikoa bermatzeko, zor bat eraikitzea beharrezkoa denean, aukera hori xedatzea desjabetzearen aurrean, zuzenbide pribatuan edo administratiboan jasotako araudiari jarraiki.

Hirigintzako plangintzak espazio pribatu baten gainean erabilera publikoko zorra ezartzea interes publikoarentzako aukera onena bezala legitimatzen duenez, planeko hirigintza arauak edo kasuan kasuko garapen agiriekin garatu behar dituzte zehatz-mehatz jabearen eta administrazio onuradunaren eskubideak eta betebeharrak.

Hala ere, askotan eta batez ere aspaldiko jardueretan, ez daude jasota alderdiek gain hartzen dituzten elkarrenganako eskubideak eta betebeharrak. Beraz, akordiorik ez dagoenez eta plangintzak xedatutakoa alde batera utzita,

---

<sup>1</sup> Lurzoruari eta Hirigintzari buruz indarrean dagoen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 181.1. artikulua edo Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 68. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bategina.



beharrezkoa da Kode Zibilak borondatezko zorrari buruz egiten duen araudiari lotzea eragindakoen eta udalaren artean sortzen diren arazoak konpontzeko.

Kode Zibileko 531. artikulua dio zorrak ezar daitezkeela finka grabatua ez dagokion komunitatearen onerako. Horrez gain, Kode Zibileko 543. artikulua alderdien eskubidea keta betebeharrak arautzen ditu (mendeko finkaren jabea eta udala); hala, zorraren titularrari dagokio baliabidea mantentzea eta konpontzea xedatutako erabilera publikoarekin jarraitzeko.

2. Hortaz, ez da alde batera utzi behar Bermeoko Udalak plangintza bidean hirigintzako irtenbide hori aukeratu duela eta testuinguru horretan zorraren onuradun den aldetik betebeharrak hori betetzeko inguruabarrak aztertu behar direla, ez-egiteak eragindako hutsa betez.

Horrez gain, udalak espazio hori erabilera publikorako baldintza egokietan mantendu beharko luke, udalerrian zerbitzu horientzako dauden jarduteko estandarrekin bat eta aplikatu beharreko segurtasun, osasungarritasun, apaintasun publikoko parametroak kontuan hartuta. Laburbilduz, kontserbazioa udalari dagokio, betiere, erabilera publikoko espazioa haren xede publikoa betetzeko hondatua edo narriatua baldin badago.

Halaber, udalak, zorraren onuradun den aldetik, espazio hori mantentzeko bidezko eginbidea eduki behar du; hala, ezin du mendeko finkaren egoera larriagotu eta karga ezin da kostu handiagokoa izan jarduerarik ezaren zioz. Horrela, udalak uste badu erabilera publikoko espazioaren kontserbazioa zona publiko guztientzat ezarrita dituen segurtasun, osasungarritasun eta apaintasun publikoko parametroen barruan dagoela, zorragatiko elkarrenganako harremanek bidezko eginbidea edukitzera behartuko liokete, eskubidea baliatzen duen eraikin pribatuaren egoera sekula ez kaltetzeko.

Hori guztia fede onaren printzipioaren aplikazioaren ondoriozkoa da, kontratu ororen berri emateko eta administrazioak eta herritarrak objektiboki bidezkoa, legezkoa, garbia eta logikoa den jarrera eduki dezaten eskubidearen printzipio orokor gisa -Kode Zibileko 7.1. eta 1.258. artikuluetan jasotakoa-, baita zuzentasun printzipioaren ziozkoa ere -Kode zibileko 3.2. artikulua-. Izan ere, jabetza pribatu baten gainean lortzen den erabilera publikoko eskubideagatik konpentsazioa bermatzen da. Ildo horretan, Auzitegi Gorenak, 2001eko maiatzaren 21eko epaian, adierazi du jabeek egoki irizten dituzten erreklamazio guztiak egiteko eskubidea daukatela, jabetza pribatuko plaza baten erabilera publikoa oinarri hartuta. Honela dio: *"La razonable compensación que el uso público de la propiedad particular ha de comportar en el pago de los gastos de conservación tiene su adecuado tratamiento en las vías negociables y de disposición de derechos"*. Auzitegi Gorenaren pronuntziamentu horri jarraiki, udal esku-hartzearen arrazoi juridikoa bidezko konpentsazioa da jabeek gain hartzen duten kargaren aurrean.





Legeak <sup>2</sup> ere printzipiook bildu ditu. Lege horrek oinarrizko arauaren izaera dauka eta herri-administrazioen araubide juridikoa arautzen du, administraziook euren jardueretan fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak errespetatu beharko dituztela xedatzerakoan.

3. Arau esparruaren eta adierazi ditugun gogoeten arabera, Bermeoko Udalak bidali digun erantzuna aztertuko dugu.

Azpimarratu behar den lehenengo kontua honako hau da: arkitektoaren txostenean gaiaren konfigurazio juridikoari buruzko ikuspegi okerra dago. Udala ez da ezereen jabe, beste baten jabetzako den espazioaren gainean eskubidea dauka eta eskubide hori baliatzeak udal administrazioak arautu beharko lituzkeen zenbait betebeharrak dakartza, hain zuzen, hirigintzako irtenbide hori ezarri zuenetik. Une hartan egin ezenez, orain hutsune hori bete behar da, adierazi digun arau esparruaren eta administrazioaren jardura orok oinarri izan behar dituen fede onaren eta zuzentasun printzipioekin bat.

Udal arkitektoak dio asfaltozko geruzak 10 ed 15 urtean behin berritu behar direla eta, ondorioz, jabeak arduratu behar direla egoera onean dagoen zolaketa berritzeaz. Planteamendu horren bidez mendeko finkaren jabea ezarri zaion zolaketa bat eta hiri altzariak (bankuak, farolak, paperontziak, etab.) epe mugagabea mantentzeaz arduratu behar da eta xede duen erabilera publikorako beharrezkoa izateagatik bakarrik erabiltzen da. Hala, duela urte batzuk hartutako eraikuntza irtenbideen ondorioz (eraikuntza hori 70. hamarkadako da) udalak berea ez den finka batean egiten duen erabileragatik bideratutako betebeharrak salbuesten da eta, hala, espazio publiko berritua dauka beti. Azken horretaz eraikuntzako titularra arduratzen da.

Udalak ia 40 urteetan espazio publikoan mantentze-lanik egin ez duen arren <sup>3</sup>, ezer abandonatu behar ez dela iritzi du, baita honako hau ere: *“autoriza que se actúe sobre su propiedad, con la condición de que una vez finalizados los trabajos, su dominio quede en las condiciones anteriores”*. Egiakzi udalak azaldutako egoera baten aurrean egongo bagina, alderdien arteko harremana jabetza horizontalaren araubideari lotu beharko litzaioke. Bertan, zehaztutako partaidetza-kuotaren arabera banatzen dira gastuak, bai ohiko mantentze-lanenak bai egiturazkoak ere (sotoko titularrak azken solairuko itoginengatik modu berean erantzun du; hark sotoko itoginekin egin duen moduan).

Laburbilduz, udal jarrera hori, alegia, beste baten jabetzako den erabilera publikoko zorraren inguruko betebeharrak ez izatea, aipatu ditugun printzipioen guztiz kontrakoa da.

---

<sup>2</sup> 30/1992 Legeko 3.1. artikulua, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

<sup>3</sup> Eragindako jabeakideen komunitateak adierazitakoari jarraiki eta jasotako udal erantzunean adierazpen hori zalantzan jarri gabe.



4. Udal-plangintza horrek, gure ustez arauen kontrakoa bada ere, eremu publikoa eraiki zenetik mantentze kontserbazio eta mantentze egoera oso onean egon izana du oinarri, udalaren inolako laguntza ekonomikorik gabe. Hala eta guztiz ere, herritarrek adierazi dutenaren arabera, errealitatea ez zen hori, kontrakoa baizik, hau da, erabilera publikoko eremua hondatuta zegoen, eta asfaltozko geruza ere kaltetzen ari zen.

Gure bigarren informazio-eskaeran udalari erregutu genion gai horren inguruko bere iritzia eman zezan, baina ez genuen inolako erantzunik jaso eta, horregatik, eragindako komunitateak aipatu bezala, erabilera publikoko eremua hondatuta dagoela ondorioztatu dugu.

Gainera, ondorio hori 2006ko azaroaren 6ko tokiko gobernu batzarraren erabakiak berresten du, izan ere, bertan adierazitakoaren arabera, "hondatze" horren erantzukizuna jabeakideen komunitatearentzat konponketa egin zuen eraikuntza-enpresarena zen. Jarduera horrek eragin zituen gastuetan udalak ez zuen parte hartu, erreklamatzailiek adierazitakoari jarraiki, eta jasotako informazioan ere ez digute informazio hori ukatu. Erabaki horrek ez zuen zalantzan jartzen erabilera publikoko eremuaren mantentze egoera hondatzen ari zenik, izan ere, kontratazio-negozio horretako harremanek ez zuten zerikusirik udalarekin, azken horrek ez baitzuen bertan parte hartu.

Laburbilduz, jabeakideen komunitateak hondatuta zegoen erabilera publikoko eremu bat konpontzeko lanak bere gain hartu ditu. Udalak ez du eremu horretan esku hartu duela berrogei bat urte, eta beraz, arrazoi horrexegatik berrets dezakegu hain eremu zaharra zen horretan esku hartzeko zegoen beharra. Gauzak horrela, Bermeoko Udalak guztiz berrituta dagoen eremu bat dauka, eta haren betebeharra konpontzeko, bertan erabili diren materialen baliozko borondatezko diru-laguntza eskaini nahi du. Horrekin guztiarekin, bidezkoa ez den aberastasuna lortuko du, ez bailuke bere gain hartuko hizpide dugun erabilera publikoko gunean bideratu den esku-hartze guztiaren kostua.

5. Auzokideek alkatearen idazki bidez jaso duten jakinarazpenak, Hirigintza, Obra eta Ingurumen Sailak enparantza konpontzen erabilitako materialaren zenbatekoa itzultzeko "akordioa" onartu duela dioenak, forma mailako akatsak ditu, gure lehen informazio-eskaeran adierazi genuen moduan, eta ez dute horren inguruko inolako azalpenik ezta zuzenketarik ere eman, guk dakigunez behintzat.

Gauzak horrela, eragindakoek jasotako jakinarazpenak ez ditu ekintza administratiboen gutxieneko baldintzak<sup>4</sup>, besteak beste:

- Eskumena duen organoak egingo ditu, eta, horretarako, ezarritako prozedura jarraituko du. Informazio-batzorde batek ez du ebazpenerako

---

<sup>4</sup> 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 53., 54. eta 58. artikulua.

eskumenik; proposamenak eta irizpenak ematen ditu eskumena duen organoak ebatz dezan.

- Jakinarazpenetan arrazoiak azalduko dira, eta gertakariak eta oinarri juridikoak laburki jasoko dira. Ez da azaldu materialaren zenbatekoa bakarrik ordaintzeko zergatia, ondoren aztertuko ditugun beste egoeretan ez bezala.
- Administrazio bidean, erabakia behin betikoa den azaldu behar da. Era berean jarri daitezkeen errekursoak azaldu beharko dira, eta horretarako tokia eta epe egokia agertuko dira.

Azpimarratu beharrekoa da herri-administrazioak ezarritako administrazio-prozedurara egokitzea herritarrekiko bermea dela, eta edonola ere errespetatu behar dela. Prozedura hori ez betetzekotan, baliogabetuko eta deuseztagarrituko da.

6. Horrek guztiak, udal arkitektoaren txostenak aipatzen dituen borondatezko diru-laguntzen gaia eta ezaugarri berdineko alboko eremuetan erabilitako irizpideak aztertzeraz bultzatzen gaitu.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak<sup>5</sup>, 8.1. artikuluan zehazten duenez, herri-administrazioetako erakundeek, alde aurretik, diru-laguntzei buruzko plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak. Artikulu horrek honela dio hirugarren atalean:

*“La gestión de las subvenciones a que se refiere esta Ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:*

- a. Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.*
- b. Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.*
- c. Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.”*

Bestalde, legearen 17. artikulua tokiko erakundeak behartzen ditu diru-laguntzen oinarri orokorrak eta zehatzak onartzera, eta diru-laguntza horiek emateko irizpide objektiboak, besteak beste, zehaztera. 18. artikulua, bere aldetik, diru-laguntzak emateak eskatzen duen publizitatea arautzen du.

Arestian argudiatu dugun moduan, ez gatoz bat erabilera publikoko eremua konpontzen izan diren gastuak ordaintzeko, udalak borondatezko diru-laguntzat jotzen duena erabiltzeko ideiarekin. Hala eta guztiz ere, kaltetutako auzokideek salatu dutenaren arabera, udalaren jokabidea lege araututakoaren kontrakoa da erabat, izan ere, bereizkeriaz ebatzi ditu berdin-berdinak ziren hainbat egoera. Horrela, hurrengo egoera hauek nabarmenduko ditugu:

---

<sup>5</sup> Herri-administrazio guztietarako oinarrizko legea da, legearen lehen azken xedapenean ezarritakoaren babesean.





- 2007ko uztailaren 9ko udal arkitektoaren txostenak erreklamatzaileren alboko jabekideen komunitateari eskatu zion lauzatzearen amaierako likidazioa aurkez zezan, prezioa berezituta, horrela, ERABILERA PUBLIKOko benetakoa azalerara mugatuko baitzen.
- 2008ko apirilaren 15eko tokiko gobernu batzarrak alboko komunitateari 22.334 euro ordaintzea erabaki zuen, erabilera publikoko 407,99 m<sup>2</sup>-ko azalerarengatik, udal arkitektoak hala proposatuta, prezioak berezituta aurkeztu ez bazituzten ere, 45 euro/m<sup>2</sup>-ko prezioa gehi industria mozkinaren % 19 aplikatzeko proposatu baitzuen, antzeko partidarentzat udalaren kostua kontuan hartuta.
- Baina komunitate erreklamatzaileri, ordea, haren jabetza pribatua erabilera publikoaren mendekotasun egoera berdin-berdinean dagoen arren, prezioak berezituta aurkeztu ondoren, materialaren prezioa besterik ez diotela ordainduko adierazi diote, hau da, 7 euro/m<sup>2</sup>-ko, kokatzeak duen kostua bere gain hartu gabe.
- Udalak eskainitako informazioaren arabera, 2010eko otsailaren 5eko udal arkitektoaren txostenean adierazitako irizpideak ezarri dira, udal arkitekto berak 2008ko otsailaren 29ko proposamenean adierazitakoekiko guztiz ezberdinak direnak.
- Jakinarazpen horrek, alboko komunitateak jasotakoak ez bezala, ez ditu ekintza administratibo baten ezinbesteko baldintzak betetzen, besteak beste, organo eskudunaren ebazpenik ez duelako ez eta udalak alboko komunitatearekin erabilitako irizpidearekiko guztiz ezberdina den irizpidea erabili izanaren arrazoia ere.

Hori dela eta, diru-laguntzen alorreko araudia aplikatuz, udalaren jokabidea publizitate, gardentasun, konkurrentzia, objektibotasun, berdintasun eta bereizkeria ezaren printzipioen kontrakoa da, herri-administrazio guztiek nahitaez bete beharrekoak.

- 7 Ondorioz, udalak enparantza mantentzeko gastua ordaintzeko beharra dauka, jabetza pribatuaren erabilera publikoa egiteagatik, erabilera publikoko mendekotasuna erregulatzen duen araudiaren arabera, eta beraz, jabekideen komunitateek egindako gastua ordaintzeko beharra, izan ere, eremu hori oso hondatuta zegoen, bertan ez baita inolako esku-hartzerik egon, gutxi gorabehera, azken berrogei urteetan. Hori guztia, egoera berean zeuden alboko eremuetarako erabakitako irizpide berak erabilia egingo da.

Gainera, horrelako eremuetan izaera orokorrarekin bere gain hartzen dituen eskubideen eta betebeharren erregulazioa bultzatu beharko luke, eragindako jabekideen komunitate guztiek entzun dezaten, fede onaren eta ekitatearen





printzipioei jarraiki, etorkizunean beharrezkoak diren elkarrekiko harremanak arautzeko balioko duten irizpideak eta parametroak egon daitezzen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**21/2010 GOMENDIOA, abuztuaren 31koa, Bermeoko Udalari egina**

Eskumena duen organoaren ebazpen bidez, (...) kaleko (...) zenbakietako jabekideen komunitateari enparantza lauzatzen egon diren gastuei dagokien zenbatekoa ordain diezaion, antzeko partidarentzat udal moduluaren metro koadroren arabera prezioa ezarriz.

